

2020/03/11 20:00

irakurraldia
rock & Talla
LA BODEGAY



eta poesia !!

ROCK & ROLLA

URDAIAZPIKOA ETA POESIA II

MARTXOAK 11, 2020

20:00 LA BODEGA

1. entzunaldia

- Adrienne Rich
- Andoni Tolosa
- Audre Lorde
- Ixiar Rozas
- Txema Garcia-Viana
- Xabier Montoia

1. Nirekin
2. Mimetismoa
3. Rock & rolla akabatu duzuela...
4. Mundu zailaren atlasa
5. Putzu beroa eta kea

MOZTU URDAIAZPIKOA

(inspirazio iturria:
Little Richard - *Lucille*)

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ez dugu gosea nolanahikoa.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Premia ez dugu poetikoa.

Handik ekarria da kriston txerri hanka,
biba Gaztela eta biba Salamanca!

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Orain artekoa ez da nahikoa.

Beti izan zarete lagun ta kolega,
betiko bizi bedi guregan Bodega.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Tripako zuloa neurri handikoa.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Labanaren dantza hain teknikoan.

Hori bai trebezia aizto zorrotzakin,
zuk baino hobe mozten inork ezin jakin.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Usaina gureztat da erotikoa.

Urdaiazpiko pixkat atera lehenbizi,
literaturaz soilik inor ez da bizi.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Jan dugun azkena da aspaldikoa.
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!

1.1. Nirekin

Rockak paretak
jotzen dituenean
usapalak olio putzutan
jausten direnean
itorik

eta neure paisaia
beltz eta zilar
larru eta metala

nagusitzen denean
nire ondoan behar haut
zerbezakin biok itotzeko
oroitzapenek
—labana zorrotzak—
barrena urratzen didatenean

malkoak ezin atera direnean
toki bat uzten dinat
neure ustelkerian.

1.2. Mimetismoa

gauaren ispilutik zintzilik dago mundua
eta itzalak besterik izaki goaz kaletik
islada hutsak
geure buruari
 bakarrak
 garela
 sinistaraziz
gure desioak

pastillak astinduriko gorputzak
dantza zoroaren
 taupadak
 daramatza
 musikak

ahoak gor arazten ditugu
belarriak mututzeko
eta bihotzak itsu arazi
begiek
 ez dezaten
 gehiago
 hitz egin

eta gauak iseka egiten digu ispilutik
behin eta berriro
desberdinak garelako ilusioan
mimetiko zoriontsuak gara

1.3. Rock & rolla akabatu duzuela pentsatzen duzue?

Zopaz eta pistaz betetako katilukada gosaltzen dudan bitartean
Egin-ek goiz bakoitzeko torturak
zerbitzen dizkit.

Potroetan kolpeek, elektrizitate korronteeak,
bideetan bortxatutako neskatilek
ez didate goragalerik ematen,
areago, behar ditut

Karlosek egunero bere heroina behar duen bezalaxe.

Eta Gasteizen

tabernak itxi dizkigute,
are okerrago, musika kendu digute.

Alkate burusoila, bere espartzuzko gurutzarekin.

Auzo-elkartek detergentea intsentsu botatzen.

Gure aita, gure ama eta gure izeba-osabek hankatar-tean
hatz egiten dute, konplazituak.

Eta drogazaleek malkoak zulatu zituztela

mafiak zeruari disparatu ziola

eta gazteek Fortuna erre zutela

alegutzen dute.

Aluak, rock & rolla akabatu duzuela pentsatzen duzue?

Urrunean,

Zorroaga ondoan

etxe bat sutan dago.

Garren kolore gorria

egunsentiaren urdin gainean

nola atsegin dudan!

Monjen ikastetxean

koadrozko gonadun neskato txikiek

musu ematen diote amari

klasean sartu baino lehen.

Badirudi negua etorri dela

kamiseta jantzi behar dut.

1.5. Putzu beroa eta kea

Gaua da
taberna putzu
beroa eta kea
mamu
eta amodio ezinen
gaua
etsipena urrutiratu
nahian
alkoholak gorputzak
erretzen
kaleak aldatuz
mudatuz
rock and rollak
bart arratsa ametsa ez zela dioen bitartean
gaua da
trikitixa hautsiak
azken doinua eman dio
egunari
eta zurrunbiloa
jabetu da azkenik
gure gorputzez

2. entzunaldia

- Asier Serrano
- Eider Rodriguez
- Eneritz Furiak
- Gerardo Pozo
- Miren Narbaiza
- Ruper Ordorika

1. Zibilizazioen bisaia dute
2. Zarata
3. Ta zer ez da berdin
4. Txioka
5. II 09 attrezzo

PIXAGUREA

(inspirazio iturria:
Ramonés - *She's the One*)

Ai ai premia
Ai ai larria
Hainbeste ordu edaten
Maxkuria ez bazait lehertzen
Komunerako bidean
uouououou
Lehenbailehen

Ai ai ai bi ate
Ai ai perez pare
Tartean egon behar
Baten bat libratu arte
Ez dakit zenbat
Uuuuoooo
Iraungo deten

Minutuak badoaz
Baina aterik ireki gabe

Ai ai artean
Komun barnean
Ez da zaila asmatzen
Zertan ari diren
Presa handirik gabe
Uoooooo
Tronpa astintzen

Madarikazioa
Marea bihurtu da pixagurea

Ai ai lagunak
Adiskideak
Guztiok ditugu
Premia larriak
Baina komunak
Uuuooo
Hustutzeko dira
Hustutzeko dira
Hustutzeko dira
Hustutzeko dira
Ez ezer sartzeko
Hustutzekooooo
diraaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa

2.1. Zibilizazioen bisaia dute

Suntsitutako zibilizazioen bisaia dute
auzoko tabernara jaisten diren giza manikiek.
Gitarra hautsi bat da
txerriki ozpinduegia zerbitzatzen duen emakumearen sabel
eta teklarik gabeko klabikordioa barrako gizonaren irria.
Nota desafinatuak zeharkatu behar ditu hemen keak.

Eguerdiko ordu biak dira eta haizegailuak
bero sapa baino ez du hedatzen, hori bai,
demokratikoki, eta ez da gutxi.
Eguerdiko ordu biak dira eta
ez dut prentsa ez erostearen damurik.
“Aurki ditugu hauteskundeak” bota du norbaitek,
baina ez dio esaldiari segitzen,
mahaitik lurrera erori berri zaion domino pieza jasotzen
okupatuegi dagoelako apika.

Eguerdiko ordu biak dira eta
metal hotsa aditu da txanpon makina argitsutik irteten.
Apustularia, irabazitako sosengatik pozik sentitzetik urruti,
txanpon berria zerez egina den hausnarrean ari da:
“Berunez egin beharko lituzkete txanponak” esan du
“orduan bai, orduan jakingo nuke
zein etekin atera txanpon bakarrari”.

Eguerdiko ordu biak dira eta
auzotar izatearen harrokeria
kamisetan itsatsirik daraman gazte bat gerturatu zait:
“Hi ez haiz hemengoa” leporatu dit.
Eta nik, ezetz eta baietz erantzun diot,
ezetz eta baietz aldi berean,
bi garagardo eskatu bitartean:
“Eguerdiko ordu biak dira eta hiruretarako
hangoa izan nintzen bezala
izango naiz hemengoa”.

2.2. Zarata

Zarata emaria hasieran zena ezerezetik idatzia,
arnasten dudan aire zuria da.

Zeneramatzan min zahar denek jada ez dute zugar bizi nahi,
zeneramatzan mintz zahar denek jada ez dute bizi nahi.

Ezer agindu gabe eman duzu dena,
barrua zabaltzerako bertan zinen jada.

Ilunabarra nekati, itzalez margotu begi bi
egun guztiko eguzki zure epelaz igaroko loa nik.

Eta emeki, gerritik helduta
atzean utzi lur idorra, zilarrez jantzi errekastoa
dantzari doa.

2.3. Ta zer ez da berdin

Ez dut ezer, ez dut ezer inoiz
ez dut ezer inoiz zuri esateko
ohiturazko egunkari eta irratiek ere
ez lukete hobe eginen
euskadin rokanrolak ez du inoiz dirurik emanen
inon baino alaiago izanen da
ta zer ez da berdin
ezin zaitut, ezin zaitut inoiz
ezin zaitut inoiz zu bisitatu
munduan ez da kokolorik ez zeruan ere
ni bezain gaizki eginen lukenik
euskadin rokanrolak ez du inoiz dirurik emanen
inon baino alaiago izanen da
ta zer ez da berdin
ez dut ezer esateko
ezin zaitut bisitatu
rokanrolak ez dik dirurik emanen
berdin zait dena, zintzilik nago
ta zer ez da berdin.

2.4. Txioka

Egunkari odolduak
orbelarekin nahasita
goiztirriaren usainak okitzen nau,
zorutzen nau.

Oihuak entzun ditzaket
nireak izan zitezkeen
balkoia kaiola huts bat
geranioak erreta
txioka entzun ditzaket
maitasun promesak egiten.
Nork nahi du ene kantua?
Kantu madarikatua.

Txioka, Txioka, Txioka entzun,
txioka, entzun.

Geranioak loretan
zure azken laztanaren testiguak...
Jasan dezakegun oro
merezi dugula
zioen ero batek
bizirik den batek.
Nork nahi du ene kantua?
Berandu heldu den lantua,
kantu madarikatua.

2.5. II 09 attrezzo

Xingola beltzak begien azpian,
doluz, doluz,
huntza gora, paretetan,
gure etxea makurtuz.
Ura zuzendu nahi izanagatik
itoz, itoz,
larrua oztopo badu euriak
ez du errukirik izango.

Munduari errukirik ez genion
inoiz izan
maitale denak akastun bihurtzen direnik
ez genuen ikusi nahi izan.
Eta samaldaka galdu ditut letrak,
halakorik ez dela esanda ere...
nor ote, ni ote?
Entzun dut dela rock and rolla
bidea, eskola
baina ez da berdin aurretik edo atzetik
oihalari hamaika buelta eman dizkiot
eta sutu naiz, menperatu nau,
utzi diot hala izan dadin,
berriz, berriz.

Zein zurbilak diren sabaiak
dotore jantzita, xuxurlaka profetak
esanez ez dutela nire izena akordatzen
esanez, esan gabe, gainetik begiratzen.
Eten nahi dut haien zainetako
attrezzo gorria, harrotasun basatia:
denok baikara lekuko isil
basamortua zaborrez bete dugu hain arin.

Ikatzezko ozeano honetan.

Banoa eta ez hegan
oinak lurrean nahiago ditut
adjektibo bakar batean ezin naiz kabituz
hizkuntzak mugatzen nau
ideiak usteldu, gaur
goizean jaiki naizenetik
atzokoak hor dirau.
Ezin dut eraitsi, ene itzala ebaki,
munduak daramanaren antzera du etsi,
onartu du amnesiak ez duela sendatzen
ez dela gaitz errealik paper batez osatzen.

3. entzunaldia

Itxaro Borda

Jule Goikoetxea

Niko Etxart

Pako Aristi

Sorkun

Xabi Borda

1. Rockeroa furgona berrian

2. Atzoko haizea

3. Suparrobiren tranzendentzia

4. Gitarra andrazkotuak

5. Gizaki hauskorra

PINTXO POTEA

(inspirazio iturria:
The Clash - *Should I Stay or Should I Go*)

Gaur dugu pintxo potea,
gaur zer astegun ote da?
Igande-asteazken artean,
astelehen, asteartea;
beti itxoiten duguna,
noiz helduko osteguna.

Lau txanpinoi, bi kroketa,
txaka, bakailao, brotxeta.
ar, eme eta ez-bitarrak,
gora gu eta gutarrak.
Zinezko gure ohiturak,
hau benetako kultura.

Gure koadrilakoak lehen
ez ginen asko juntatzen.
Aspalditik astean behin
arrimatzen zaigu edozein.
Orain bagara zeozer
pintxo poteari esker.

Halere bada atsekabe:
espezistak dira jabe.
Arrautza, esne, txerriki,
arrain handi eta txiki...
Noiz humus ta platanoa,
pintxo pote beganoa?

Pintxoak dira debalde,
iluntze eta arratsalde.
Zortzi ardo, hogeï euro,
merke atera zait gero.
Etxera joan eta gaurkoz
ez dut jana prestatuko.

Pintxo potea guri motz,
Hernanin bada pintxo txotx.
Sagardorik gabe ezin
dugu bat egin zuekin.
Sagardorik ez balego
ginateke espainolago.

Gaur dugu pintxo potea...
Gaur dugu pintxo potea...
Gaur dugu pintxo potea...
Gaur dugu pintxo-potea...

3.1. Rockeroa furgona berrian

Militantea eskiatzera doa ostiral iluntzean,
arratsaldean presoen aldeko manifan izan ondoren.
Rockeroa furgona berrian doa kontzertua ematera,
eta ordu txikietan sartuko da
amak goizean egin dion ohean.
Gazteak autobusean doaz Donostiako gaurko manifara
eta gauean bapo afaldu eta mozkortuko dira.
Funtzionarioa Chiapasera doa iraultzaren taupaden bila
urte osoan hiritar ernegatuoi
burokrazia tonak irentsarazi ondoren.
Gosearen aurka limosna eman duen kristauak
bi hilabeteko soldata botako du
udako apartamentuagatik.
Futbolariak dira jende xehearen miresmen eta eredu:
diruagatik euren burua
edonora saltzen duten mertzenarioak.
Gure historia aztertu duen ikerlari sutsuak
ez daki bere aurkikuntza jatorrizko hizkuntzan ematen.
Eskuineko parametroen erosotasunean bizi gara
baina herrialde iraultzaileekiko sentibera gaude beti:
aberatsak izanik prest gaude beti
pobreei pobreago izaten laguntzeko.
Gauza garrantzitsuak gazteleraz esanez
babesten dugu euskararen garrantzixoa.
Hau da Euskal Herria:
burges putaz beteta dagoen
munduko herririk iraultzaileena.

3.2. Atzoko haizea

atzoko haizea sartuta daukat gelara
dantzan jarriak
mahaian paperak apaletan hautsa
egonezina nire barnean

zintzilik geratu dira
rock izarrak poster despegatuetan
arropak aulkitik jausita
hilotz bat dut zoru gainean

haizea aterako badut
leihoa zabaltzea
beste irtenbiderik ez daukat

3.3. Suparrobiren tranzendentzia

Leitzako
eliza grisa
euripean disdiratsu
ikusi nahi nuke berriro.

Suparrobiko
haize basatien beharra
hezurretan urtzen
senditzen dut
gauetz gau
bizitzaren ingurutxo etengabea
dantzatuz
patxi perurena txixtulari.

landan asmatu poesi etilikoaren konzeptua.
rupe ordorika iparralde egunean.
itziaren abots metalikoa.
gotzoneren irrintzinak.
imaren irri gozoak.
koxemari gandiagaren hiru gizon bakarkaz mintzo.
eta besteak
eta besteak...

burua zartatu zait
Leitzan
eta aspaldiko partez
gorputzeko nekadura astuna sumatu dut:
laino pean
belar umilen izpirituei hurbildu naiz.

Leitzarrok!
Leitza rock!

3.4. Gitarra andrazkotuak

Tarte semantiko bat besterik ez zara
ilusiozko eta ile kizkurreko eskeleto semiotikoa
abstinentziaz eta neurrigabekeriaz konposatua

utz iezadazu istant amaigabe bat bizitzen
kantu flamenko eta gitarra andrazkotuen
melodia andaluz donostiar lasartear honetan
zure bekain beltz eta errima zoroen artean

utz iezadazu zure tristura gorrian dantzatzen
astrapala gorritz sukartzen
eztanda egin eta berriz nare arnastu arte
ile kizkurrez eta ilusioz ase
zure ukitze grinatsuak
nire ego eta nire erregina afroalemaniar
euskal errepublikar demasien artean

ezin da dirurik eta herrialderik gabe bizi
baina emango dizut nire arima gorri
metafora literalez trinko
nire kizkur semiotikoak
abstinentziaz eta neurrigabekeriaz konposaturiko
nire eskeleto adierazlea

3.5. Gizaki hauskorra

gizaki hauskorra
gizon zurbil eta ubelduta,
musikaz blai ... gorrotoz blai.
sortu, sortu, sortu.
zenbat maite ninduzun?...
gizaki hauskorra
gizon zurbil eta ubelduta,
alkoholez blai... gorrotoz blai.
oihukatu, oihukatu, oihukatu.
zenbat samin?...
zure dohakaitza,
zure mamuak,
erakutsi zenizkidan.
samin beltza, negarra,
akordeetan izkutaturik
heriotzaren zain.
sortu, sortu, sortu.
zenbait maite ninduzun?...
gizaki hauskorra.

markatuak, so eginda.
legeak, begiradak
epaiak, mihaketak

4. entzunaldia

- Aiora Renteria
- Janis Joplin
- Juanjo Olasagarre
- Miren Aranguren
- Paddy Rekalde
- Patti Smith

1. Joe Strummer
2. Hitz bi, lau kanta
3. Elektrizitatea
4. Goazen txikitxo
5. Emari berriak

MUSIKA ONA

(inspirazio iturria:
Black Sabbath - *Paranoid*)

Sartu ahala badaezpada tapatu belarriak
izan kontu edo bestela hori infartu zikina

ordenagailuak dio hori dela musika
fubola jaurtitzen ozen berriz bi telebistak
hori zarata
buila galanta
ouuie

spotify jo ta fuego publizitatearekin
youtubeko jaun prestuek ez dute ematen bakerik

kantu berbera hamar aldiz taberna guztietan
duela hainbat urte jada entzunezina zena

gaua joan ta gaua etorri hau bai kondena latza
halako arriskuan jarri gure osasun mentala
musika onaren
aldeko denak
goaz borrokara
ouieeee

4.1. Joe Strummer

Etorkizuna idatzi barik dagoela dio Joe Strummerrek
mikrofonoaren atzean telekasterra besarkatuz,
eta Woody Guthriek gitarran idatzita zeukan bezala,
This Machine Kills Fascists,
musikaren indarra aldarrikatzen du,
Pantera Beltz berrien rap eta hip-hopa
Boterea borrokatzeko punk-rocka
baztertuen kaleetan dabilen Dub Poetry lehegarri hori...

Joe Strummer izerditan, begiak bilduta,
Garcia Lorcarri galdezka non ote dauden
gera zibileko lubakietan bandera gorriaz jantzirik
hil ziren poeta internazionalistak,
Spanish Bombs eder haren erritmopean

Joe Strummer, irribarretsu baina sutan,
ghettoak matxina daitezen deika,
rebels calling! rebels calling! know your rights!
bafleek eztanda egiten duten bitartean,
This Is Radio Clash, Intxorta 37 Irratia

Joe Strummer, malkotan, telebistari begira
Rock The Casbah idatzita daramaten megabonbek
Ekialdeko hiri urrunetan triskantza ikaragarria
gupida barik zelan eragiten duten,
mass media nagusien prime time horren bazkarako,
Death is a Star

Joe Strummer, Public Enemy no.1,
matxinadarako poemak eta makien swing hori,
arrakasta errazaren zirkura joateko
eskatzen diote kritikariek etengabe,
borrokaren frontline horri bazter emateko
multinazionalen kaiolan jaguar distiratsu bihurturik

Baina Joek, sasipeko irratien uhinetatik
aldarri egiten du behin eta berriro
etorkizuna idatzi barik dagoela

4.2. Hitz bi, lau kanta

Erre
fu egin eta pipatu
eta gauez
zerbezak eta rokanrola,
hitz bi, lau kanta
hiru igurtzimendura
bi ideia, mozkor hamaika
sakon-sakon sumindura
eta horretan, deslilura.
Goizez eta ez hain gazte
sinfonia fin
sinfonia den
iratzargailuaren osteko
txakur eztula
kostoma urratze
komuneko bonba
eta amaren oihua
«fuma puta hori
noiz utziko duk?»
fuma puta hau
eztula, kostoma, bonba,
hauspoen errebelioa
arnasa hartzeko ere
baimen behar hau
gorabehera
segi aurrera
eta sardina bakalau.

4.3. Elektrizitatea

Belar artean, bakardadean bilusik dantzan
Oinak bustirik, lurraren erdian
belarrarekin jolasean
pentsamenduak joan egin zaizkit
egunarekin batera iluntasunak,
hartu egin nau,
negar malkoak gau ilun honen azken arnasketaren
azkenengo segunduetan nik ere oihukatu egingo dut
munduak ahazten banau,
lur honek askatzen banau
zerbait utzi beharko dut
behintzat euri tanten artean
ilargiak erakusten duen
aurpegiaren aurrean
eskatzen diet oihukatuz izar galdui
nire negar malkoek errial desatela lurra
nire arimarekin, energia banaiz
badaezpada banao,
hegaka ez bada ez noa
nire gorputzak ezkatzen dizkidan ate apurtuetara
badaezpada banao,
hegaja ez bada ez noa,
hegaka ez bada ez noa
ispiluan ikusten dudana elektrizitate lur-jausira
energiak lur-jausira narama,
nie neu ere nergia banaiz
lurrean betirako idatzirik geldituko naiz,
elektrizitatea banaiz,
elektrizitatean banaiz
lurrean idatzirik geldituko naiz.

4.4. Goazen txikitxo

Goazen txikitxo,
utz zazu garai onak pasa daitezen
goazen txikitxo,
utz nazazu zure arima hunkitu dezadan
goazen txikitxo,
hoberena zara
gau osoan martxan

Goazen txikitxo,
itxi dezagun atea
goazen txikitxo
goazen apur bat gehiago egitera
goazen txikitxo
utz ezazu garai onak pasa daitezen
gau osoan martxan

Oso ongi sentitzen naiz
etxean zaudenean.
Goazen txikitxo
goazen apur bat gehiago egitera
goazen neska
rockea nazazu gau osoa!

4.5. Emari berriak

Izan ginen inoiz
zure bila, gaurerdian
ehundu genituen amorruek, algarak
zeruertzean dantzan galduta, galdutako udazkenak
gatibatutako destino epikoak

Zeru ertzean, hotzikarak
itzali du
SUA!

ur emari berriak
bazterretan, nahastuak
gainezka egiteko
ilusio kartsuak

Zeru ertzean, hotzikarak
itzali du
SUA!

Itzali genuen sua berpizteko

5. entzunaldia

Edorta Jimenez

Gorka Setien

Haizea Belasko

Libe Garcia de Cortazar

Lide Hernando

Nerea Ibarzabal

1. Infernuko alearen bafleetatik

2. Punteoaren puntan

3. Urratsak

4. Arrain hilak

5. Nire bala

TABERNAKO BABOA

(inspirazio iturria:
Dr. Feelgood - *Stupidity*)

Hara, badator...
A ze baboa...

Sartu da tabernan
oihuz lardarian,
ez du bake ematen,
babo handiak!
Maiztxo ukitzen ditu
besteen ipurdiak,
Lerdea ezpainetan,
hori babokeria!

Grazia egingo luke
babo handienak,
izango ez balu
mingaina agerian.
Inork ez du jasaten,
horixe da egia.
Ez da inoiz enteratzen
erdiaren erdiaz.

Jaun eta jabe da
alkohol ferian,
itoko al da
barran igerian.
Futbolaz badaki,
jaun da materian
Urrezko baloia
babo galerian.
Dantzan irrist egin du
jendearen erdian,
lurretik zabaldu da
tipoaren miseria.

Titietan orain
egin igurtzia.
Lerdea dario!
Babo handia!
Kalera botatzea
gutziz du merezia
tabernan behingoz buka
dadin babokeria.

Sartu da tabernan
oihuz lardarian,
ez du bake ematen,
mingaina agerian.

5.1. Infernuko alearen bafleetatik

Emakume batek zerua dudan jartzen zuen bitartean
besteak egunero ikusten zuela zioen.

zerua gauez kalera
kapa beltzez ateratzen denean
izarrak ikusten zaizkio bizkarrean
edo barruko aterpe prometiaren leihoak izanen.

zeru izar kuriosidade eta promesen oroitzapenei
lotuta geldituta gero,
denbora ametsaren errapetik geroa xukatzen ari dela
leiho urrun haietaraino igotzen gara;

orduantxe
ezinezko ametsen antzera
plazerra bukatzen zaigu
ebasioa moztu
erre gustoa dastatu
ebasioa moztu
erre gustoa dastatu.

obsesioa platerean berriz ere;
eta ez noakizue zerura zihur joango zirela
esan zigutenen zerrenda segidan ezartzera, alferrik baita.

infernuko alearen bafleetatik «la polla record»

5.2. Punteoaren puntan

Euria eta biok elkarregaz berbetan;
Euria jausi eta jausi
Eta ni
Jausten eta jausten
Sekula be jausten amaitu barik
Jausten eta
Jausten
Bonberoak etorri dira
—punteoaren puntan puntako
notak—
Gorpu suizidatuaren
Gizartearentzat berreskuratzeko
—bateria bakarraldia—
Oraintxe hasten
Benetako historia
Hau bluesa da
Ni jausten
Eta jausten noa
Euriagaz berbetan
Zeuok amaitu behar duzue
kanta
Ni jausten eta jausten
Noa eta.

5.3. Urratsak

Urratsak, ostoez estalita.
Usaina, uretan deseginda.
Ahotsa, haizeak eramanda.
Gogoak, giltzapean gordeta.

Hau ez da, hau ez da lo kanta bat.
Hildakoentzat nire abesti garratza.
Dantzatzera bultzatzeko zergatia.
Nire oda, azken hatsa bezala.

5.4. Arrain hilak

Aske ote da txoria hegoengatik?
Edo ahula ote da tamainarengatik?
Ezin dugu inoiz jakin
Errebelde ote gara zapalkuntzagatik?
Ala otzan ote gara zapalkuntza hori
kuestionatzen dutenekin?

Erregeak zein dira peoiez jositako taula honetan?

Kulturaren engranaien olio faltaz
Aberasten diren horien memoria falta
Ahaztuta nondik zatozten?
Libre izateko
Gauza bat beharrezko
Sormenari oztopo
Egiteari uko

Ahaztuta nora goazen?
Musikaren erreinuan agintzeko
Bihotza gorde arima saltzeko
libre zara itsasora daraman korrontea aukeratzeko
arrain hilak bezalaxe

sortu, saldu, ahaztu eta hil

bada irtenbiderik
arnasgunerik

Erregeak zein dira peoiez jositako taula honetan?
Sortu, saldu, ahaztu ta hil

5.5. Nire bala

Nire olerkiaren hitzez betetako bala
Mintzen gaituenaren kontrako aterki bat bezala.
Saihesteko nire desoreka existentziala,
Sistemaren begitan ez al ginen igualak?

Kontraesanetan mugitzen gara beti.
Betiko modetan erortzen gara oso “easy”,
Kontsumoaren besoetan lokartzen gara emeki.
Pribilegioak baztertzeko beharretik hasi.

Bizirauteko lehentasunak modek ezartzen dizkigute,
Azkenengo aifona erosi urteko ogiaren truke.
Askok esango didate “zelako abesti hain kutre”,
Ta gero bakardadean entzungo al dute?

Hau da ni naizena, beraz entzun ta begira.
Lau parrafo hauen atzean dagoen egia
Nolakoak diren idazten ditudan mobidak.
Naiz ta isildu gehienetan pentsatutako erdia.

Prekarietatearen kontra, langile borroka.
Erasoen aurrean, erantzun radikala.
Herriaren haserrea sistemari tiroka.
Guzti horren kontra 28 bala!!

Debekuaren kontrako guda perpausak
Gora herri ta auzoetako konpasak.
Ohorez betetzen nau, ta honen kausa:
Mikro ta base batekin betetzen direla plazak.

BODEGAN

(inspirazio iturria:
The Runaways - *Cherry Bomb*)

Badira urte batzuk ireki zutela
jende mokofinarentzat garito itzela
hau marka
ze luxua
bo bo bo bo bo bo bo
bodegan
hori martxa
giro aparta
bo bo bo bo bo bo bo
bodegan

Txatxiri okertu zaio ordutik tupea
Perkinsek ez du utzi oraindikan reggaea
eta Mikel
hortxe dabil
bo bo bo bo bo bo bo
bodegan
betaurrekoak
zintzilik
bo bo bo bo bo bo bo
bodegan

rockan rola
eta zer kristo
bo bo bo bo bo bo bo
bodegan

obra handirik egin gabe eman dute
denbora
nahiz eta premia izan batez ere
komunak
nork behar du
beste ezer
bo bo bo bo bo bo bo
bodegan
bezeroak
zahartu dira
bo bo bo bo bo bo bo
bodegan
bodegan
bodegan
boooooodegan


Testu hauetako bi, itzulpenak dira,
eta eskerrak eman nahi dizkiegu
itzultzaileoi:

Iñaki Armendariz eta Maialen Berasategi

Hemen, baztertxo honetan,
maitasunezko oroitzapen bat
Joxe Mari Auzmendiriatzat
(seguru aski, berak
ez zukeen handiagorik nahiko)
“Eta ez da gailenduko heriotza”



Testu hauek
Hernanin irakurri ziren
jendaurrean
2020ko martxoaren 11n
Urdaiazpikoa eta poesia II izeneko
ekitaldian



testuak
aukeratzeko:

